

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Zamudio



Aurkibidea

Udalerria: Zamudio

Sarrera



Txorierrri eskualdeko herria. Baserriek, herriguneak eta enpresek osatzen duten herri honen mugak honakook dira: Derio, Gamiz eta Fika iparraldean; Lezama ekialdean; Galdakao, Etxebarri eta Bilbo hegoaldean, eta Sondika eta Loiu mendebaldean. Bere auzoak, Aranoltza, Daño, Galbarriatu, Geldo, Lekunbiz, Sandoni, Santimami eta Oxinaga dira. 1966ko martxoaren 30ean Bilboko mugen barruan sartu zen, 1982ko abenduaren 20an ordea, berriro bere buruaren jabe izan zen. Zamudion dago Bizkaiko Teknologia Parkea, herriko eta inguruko industria garrantzitsuena batzen duena. Ia biztanleen erdia euskalduna da.

- **Biztanleak:** 3.192
- **Euskaldunak:** %48,3

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **20**
- Transkribatutakoak: **9**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **20**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- IRALEren Bizkaiera Bilduma
- Tximintx euskara elkarte
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak



Karmele Artetxe Sanchez (1976)

Historian doktorea, UEUko zuzendaria izan zen 2010-2014 urte artean eta Bilboko UPV/EHUko Magisteritza fakultateko irakaslea da.



Garbiñe Landeta Uriarte (1931-2017)

Zamudioko Arteaga auzoko Olotze baserrian jaio zen eta gaur ere bertan bizi da. Ama bertakoa zuen eta aita San Antolin auzoko Olarea baserrikoa. Bost neba-arrebatatik laugarrena da Garbiñe. Lanbrantza handiko etxea izan da eurena eta beti saldu izan dituzte esnea eta ortuariak Bilbora. Elkarrizketa garaian ere, txakolina egiten ziharduten. Zamudioko bizimoduaz eta giroaz egin genuen berba beragaz egon ginenean, gerra kontuez eta gaztetako bizimoduaz.



Mauri Mendez Nuñez (1933)

Galbarriatu auzoko Igiliz baserrian jaio zen. Gurasoak ere bertakoak zituen. Umetan baserriko lanek uzten zietenean joaten zen auzoko eskolara. Etxaldetik Bilboko Erriberara joaten zen astoz baserriko jeneroagaz. Gerra Zibilean umea izan arren, gogoan du koltxoi eta ganaduak gurdian jarrita joan zirela Galdames aldera. 20 urteagaz ezkondu eta Loiuko Elotxelerrri auzoko Bidondora joan zen, gerora aireportua egiteko bota zuten etxeetako batera. Azkenik Deriora joan ziren eta bertan bizi izan zen ordudanik.



Begoña Soba Landeta (1934)

Zamudion jaio zen, Abatxu baserrian. Ama Begoñakoa zuen eta aita Errioxakoa. Ama bere ahizparen senarrarekin ezkondu zen, azken hau hil zenean. Guztira 11 anai-arreba ziren, lehengusuak barne. Sondikara ezkondu zen bertako gizon batekin.



Martin Urrejola Aurtenetxe (1927)

Geldo auzoko Abonatxu etxekoa da. Baserritarra eta itzaina izan da. Idiekiko zaletasun handikoa da.

Ildefonso Zabala (1919)

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Zelan ezagutu zuen amak bere ahizpa

- **Hizlaria(k)**: Soba Landeta, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elkartea, Tximintx
- **Erref**: ZAM-001/002
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:01:38. **Bukatu**: 00:04:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Begoren ama bi urterekin guraso barik gelditu zen. Bere nebak osabarekin gelditu ziren soloan laguntzeko, baina neskak alde batera eta bestera ibili ziren. Hamabi urterekin umeak jagoten hasi zen. Erandion beharrean zegoela, Maria izeneko ahizpa zeukala entzun zuen eta honen bila irten zen. Deriora heldu zenean ez zekien norantz hartu eta negarrez hasi zen. Taberna batetik gizon bat irten zen eta ea zergatik egiten zuen negar galdetu zion, kasualitatez bere ahizpak gizon horren etxean egiten zuen lan.

Transkripzioa

- Amuma jaio zen Begoñen eta urte bi, berak kontetan dekoztezenari, urte bi gora-behera, euki osteziñen hil jakozan, ze urte erdien edo holan, ama ta aite, biek. Eta lotu ziren lau neba-arreba: mutil bi eta neska bi. Eta umezurtz. Eta osabak, mutilek koiu ostezan, ba beharren eiteko soloan edo holan. Osea, osabak euuenak euki ostezenak han Begoñen. Baie bestak, bata beste... batetik bestera ibil zien. Esaten deuen amak, berari koiu [orien] aitebitxik eta amabitxik izen ziela pareja bat, ez ziela egon ezkontute, esaten euen eta ganorabakoan batzuk izen ziela ze, igual itxiten euriela bakarrik eta martxau eiten euriela hortik. Osea, bera, bera bakarrik. Ta gero, ya apurtxu bet handiao hazi zanian, hametik Txorierritik ibil zala ba umeak jagoten. Etxe batetik bestera, ze baten ya hasten zirenian bestera eroaten eurien eta holantxe ibil zan. Ta gero ya auki ostuzenian hamazortzi urte aldera, egon zan Fonda Estrellan ba kamarera. Eta han dauela kamarera, auki euen nobio bat Elantxobekoa, kozinerue barkukoa. Ikesten ibilli jakon, ba idatziten ta irakurriten. Baia etor zan hori, gripe española esaten uriena, ez dakit izen zan mille beratzireun ta hamazortzien edo hortik izen zan, gripe española geitzen otsiena. Eta hiltan zan jentie, igual etzeak hutsik lotzen zien! Danak hilde. Eta berak, bueno ba ya klaro, hori, salto itzela emon dot hor. Euki ostezenean hor hamalau-hamasei urte aldera, Erandion egon zan umeak jagoten, eta berak dekola aizte bat, Maria dekola izena esaten otsiela, eta hasi zan Erandiotik-eta allege zan oiñez Derioko kurtzera arte. Eta han dino ez euela jakin edo Santo Domingorantza edo Mungirantza edo Zamudiorantza eta negarrez egon zala han. Eta gizon batek urten euela, bar bat egon zan han, bar bat Elu, urten euela handik eta esan otsela: "ze eiten dozu negarrez, neska?". "Ba, eske ni... esan dostie hemeti dekotela aizte bat, krieda, Maria dekona izena". "Neure etxean daukona", esan zela. Oseake, pregunta otsen etzean egon zan krieda. Eta han ezetu zan aiztiagaz.

Edozein moduten be, lau neba-arrebak ya hamalau-hamabost urte euki osteozen arte, artean ez ziren ezetu alkar. Ta danak hamen Bizkaian bizite! Eta bueno, gero ha ezkondu ein zan baserrire. Ni jaio nintzen baserrire ezkondu zan ha, Maria; Handik Fikeko bategaz, Fikeko Migel geitzean zan, Goikoetxea, eta haregaz ezkontute, euki ustezen lau ume horrek Mariak, aman aizteak.

1.2. Ahizpak hil zorian, Begoren amari egindako eskaera

- **Hizlaria(k):** Soba Landeta, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elkartea, Tximintx
- **Erref:** ZAM-001/003
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Gripe denboran bere amaren ahizpa eta bi seme gaixotu ziren. Ahizpak hiltzear, bere senarrarekin ezkontzeko eta beste bi umeak zaintzeko, eskatu zion. Amak mutila eta koinatuarekin ezkondu zen, baina laster gizona lan istripu batean hil eta hiru umerekin alargun gelditu zen.

Transkripzioa

- Eta gripe denporan, oin salto, oin salto eingo naz, gripe denporan ba, egon zien geixorik Maria eta ume bi, ez dakit nik zelan eukin eurien izena, eta ama egon zen orduen, Fonda Estellan.

- Hori non egon zan?

- Maria Muñoz [...] kallea, Bilbon, María Muñoz [...]. Eta jon bihar izin euen / biziuen/ jagoten klaro, geixorik egon zien eta joan zien aiztea ta lobak jagoten. Eta aizteak hilteko egon zanian esan otsen: "Elena, zu ezkonduko zara nire gixonagaz, ni hiltzen nazenean? Ze, nigaz hilko dire, -izenak be esaten osten, baie ahaztu ein dastez-, hau eta hau hilko die. Bi hilko dire nigaz." Geixorik eon zienak. "Eta lotuko datzuz hamen, Elena ta Batiste lotuko datzuz eta jagongo dozuz zeure semiak balitekezen moduen?" Eta baietz dino, berak ezetz ezin otsela ya hiltzen egon zan personeari. Eta orduen, nobioari itxi, bueno ya denporea paseko zan edo urte bat-edo. Hil zan nik ez dakit zenbet denpora. Ta bere nobioari, horeri kozineruei, barkukoari itxi eta ezkondu zan koiñetuegaz. Eta orduen ba ya koiñetue, eta lotu zzn koiñetuegaz eta horrekaz loba biekaz. Eta euki euen alaba bat, hondino bizi dana, Briji, eta hamahiru hillebete euki ostuzenean alabeak, hil jakon gixona hor muellean bagoi bien artean... muellean eiten euen behar, Bilbon eta bagoi bien artean aplasteta. Eta gero lotu zan alargun hiru umegaz, baia hogeita gitxi urtegaz e? osea, gaztea.

2. Politika

2.1. Etxetik alde egin behar

- **Hizlaria(k):** Soba Landeta, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elkartea, Tximintx
- **Erref:** ZAM-001/006

- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra
- **Laburpena:** Milizianoak haien etxera joan ziren eta han ospitale bat egingo zutela esanez, alde egiteko eskatu zieten. Ganadua eta umeak hartu zituzten, eta Karrantza aldera jo zuten. Bidean, geltoki batean, bere neba galdu egin zen eta aitak atzera egin zuen umea bilatzeko.

Transkripzioa

- Eta, aitek eiten euen behar fabrika, Etxebarrian eta militarizeta eukin orien, baie esaten euen amak etor ziela goxaldean, ez dakit ze orduten milizianuek, ez dakit nik ba, ze izingo zien milizianuek, eta esan otsiela: "urten ein behar dozue ze, hau ospitel bat ein behar dogu /du/". Eta behiekaz ta guzti, eta ume guztiekaz, ba ez dakit zenbet, ya hilte egongo baziren txikerrak.

- Ze baserrie justo egon zan "Cinturón de hierro".

- Hor Cinturon de Hierron, honatxuau behean egon zan. Han dau han dau gure baserrie. Han bizi da nire neba hondiño. Eta joan ziren koiu behiek, ume guztiek eta gauzikaz ibiltan, ibiltan hortik. Eta estazino baten galdu eurien Jose, nire, osea, neba. Eta ya ez otsien itxiten pasetan atzerantza eta bera trenbidetik. Eta dino "alto" botaten otsiela. Ez, itxi dot estazinoan umia eta ni umian bille noa. Eta dino leku batetik joan ziela holan soldaduek edo ez dakit nik, eta lagundu eiten euriela batetik bestera. Eta han ikusi euriela negarrez beste matrimonio bateaz esaten: "ez zeitez ez zeitez bildurtu, ze ez badator ama, gaugaz lotuko zara" dino esaten otsiela harek matrimonioak. Nik ez dakit ze estazino zan ze, Zamudiotik urten ta ibili gare gero, bueno ibil gintzen Karrantatik, Valle de Soba. Hor, Valle de Soba dau Kantabrian. Eta Karranta da Bizkaia hondino, baie hortik ibil gintzen ba, errefujiadu, ez dakit hiru hillebete dino. Joan zala larogei kiloagaz ta hiru hillebete denporan, etxera etor zanian, berrogeiegaz. Ose, berrogei kilo galdu ostezen.

3. Baserria

3.1. Esnea eta astoa

- **Hizlaria(k):** Soba Landeta, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elkartea, Tximintx
- **Erref:** ZAM-001/013
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:17:23. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Bere lehenengo beharra soloan izan zen. Esneaz ere arduratzen zen, kantinek geltokira astoz eroaten zituen eta bagoian uzten zituen. Begoñan Bilboko andre batek esnea hartzen zuen, gero saltzeko. Belaunak txarto zeuzkan asto bat eduki zuen eta honek aurrerantz botatzen zuen bere gainean joaten zenean. Ijito batzuei astoa eta honen kumea, zaldi batengatik aldatu zieten, baina zaldia

basatia zen eta ezin zuen bere gainean jesarri atzerantz botatzen zuelako.

Transkripzioa

- Ni soloan. Baserria euki nun eta esniak. A bueno, esniak eroaten ba asto bategaz; beste lagun bet hango beste Aguatzukoa, Jesusa, biok jotzen gintzen lelango trenera esniak ataten ba kantinek esneak, ze gero biriltan genduzen trenean. Eta han Bilbon hor Iturribideko andra batek koiten ostazen Bilbon. Ordun Kalzadatan Begoñetan kantinek, esneanak saltzeako berak Bilbon.

-Eta astoa geltokian utzi eta gero trenean Bilbora?

-Ez, ez. Esneak joaten zien bakarrik. Guk sartzean genduzen trenean bagoian eta han Kalzadatan Begoñakotan, urtetan euen andra batek, Bilbokoak, esneak koitan, eta berak saldu eiten ostezen. Eta guk... guk astoakaz oster a be etzerantz. Nik euki nun asto bat, ba fallau eiten otsiena belunek; oin nire antzean, ni nauen antzean egon zan astoa. Eta joan bihar iziten zendun ba, karpanatan, karpanatan, zerak kantinek eta hankak aurrerantza badaezpadan ze paretan ziren beluneko... falleten tsien belunek, ba urtetan zindun aurretik; ba buruen ganetik eta ez jausi ezteko, beti belunek... Eta gero, holantxe, ume bat euki euen astoak eta etor zin jitano batzuk. Eta guk pentse gindun jitanoari engaiñeu eiten dotsegula /dotsula/, esan ez zelan astoak dekon falloa belunetan. Baie euren engaiñeu oskuen geuri be bai: osea, kanbiau geuntsen zalditxu bateaitik, astoa ta umia. Imiten dotsiez zaldieri karpanak, botetan dauz danak, karpana guztiek esnea dana, eta ni ez dakit zenbet biderrez bota. Eta, ume barik zaldie, zu! Osea, salbajea. Eta esan nendun: "ba hobeto egongo nintzen astoaz sikan, lantzen behin bota osten aurrerantza, baie urtetan nuen". Baina zaldiegaz atzerantza botaten osten. Bueno.

4. Ohiturak eta bizimodua

4.1. Ogia, taloa eta opilak

- **Hizlaria(k)**: Soba Landeta, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elkartea, Tximintx
- **Erref**: ZAM-001/014
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:19:15. **Bukatu**: 00:22:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena**: Soloan batez ere, artoa, garia, indabak, aza, letxuga eta porruak landatzen ziren. Ogirik ez zuten egiten baina bai opilak. Artoa labean erretzen zen eta labea bero zegoela, opilak eta sagarrak erreta egiten ziren. Ogia murriztuta zegoenez taloa jaten zuten, horregatik gaur egun ez dauka oso gustukoa.

Transkripzioa

- Soloan ze eukiten zan?

-Bai.

- Ba, atxine-atxine, ni gaztea izin nitzen orduen, eiten eurien derrigorrean erain bihar iziten /biziten/ zendun garie. Ze eroan behar iziten zan, ez dakit zenbet kilo entregu, herrien. Hori izin zan, ez dakit nik zetarako. Baia

orain, derrigorrean erein bihar iziten /biziten/ zan garie; ze ezpabere, erosi bihar iziten dozun /bizitezun/ entregetako. Ez dakit zenbet kilo iziten zien. Eta artoa, indaba, erremolatxa behientzako eta ba letxugak eta azak eta porruek-eta.

- Alkatxofak be?

- Gurean ez dogu eukin alkatxofarik. Ez, ez zan iziten nahien. Baserrie... gehienatan iziten zan horrexek: artoa, indabea, garie, azea, porrue, letxugek...

- Ta ogia? egiten zenuten ogia etxean?

- Ogie, opile eiten zan. Opile izin zan, artoa urunegaz eiten zala. Artoa iten zanian, lelango eiten zan igertu. Igerra eta paseta labatik. Igerra da labatik pase bakoa. Eta labatik paseue, tosteta. Urune eiteko iziten zan gozoaue labati. Eiten zendun labatsue, han kasik basarri guztiek dekie aurrean labatsue. Labea, sartzeako artoa, tostetako. Eta artoa... labea berotan zanean, ze asko... ota eta otagaz gehien iten zan berotu labea. Ba lelango artoa eta gero, ataten zenduzenean artoak, aprobetxaten zenduzen erretako sagarrak eta eiteko opilek. Opilek izin zien taloan modukoak baia lodiek. Holan lodiek. Talo-urunegaz iten zien, baia lodiek. Ta geintzen zien opilek. Eta nik ogie... honek Batiste... honek aman... osea, lehengusine izin zana, aman lelango gizonan... iten otsezenak, hori izin zan panaderue. Eta han laban... hor egon ziren Derion soldaduek eta etorten zien hara ogien bile. Berak iten euen laban ogie, ogie. Baia guk... nik etxean ez dot ikusi ogie eiten. Bakarrik taloa eta opile, labasue eiten zanean e? eta han erretan...

-Morokile?

-Morokile bai. Morokile eiten zan artoan urune eta ure. Uregaz e? eta gatz apur betegaz. Eta hori lotean zan flana baiño... holan, osea... ebagiteko moduen. Flana moduen lotzean zan. Eta aiten zendun, bota plater batera edo katillure-edo morokile eta gero iten zendun zuloa eta iminten zendun azukera... esnea azukeragaz, beroa. Eta morokilek ez euen eukiten, hotza egon arren bardin. Botaten zendun eta jaten zendun azukereaz eta morokil zati bet. Niri beti faltetan iosten esnea, beti akabetan nun esnea eta morokile beti sobretan iasten, akordetan naz. Eta ogie klaro, gu... derrigorrean jan beha iziten zen taloa ze ogie bakarrik jango ete orien, holango ogitxu bat, razionamentuen, bakotxantzako. Ta ez akuna aillegetan ba... armostako bakarrik ta ostein taloa jan beha iziten zan. Eta horregaiti nik oin, lantzean behin jaten dozu baia ez doste emoten hainbeste zer taloak, ze derrigorrean urte askotan jan dogu /du/, ez zalako ogirik egon. Ta taloa. Gitxiau gustetan iasten niri taloa.

4.2. Antzinako plantxak

- **Hizlaria(k):** Soba Landeta, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elkartea, Tximintx
- **Erref:** ZAM-001/016
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:29:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- **Laburpena:** Berak erabili zituen lehendabiziko plantxak txingarrez betetzen ziren berotzeko. Aspaldiko plantxa bat erakusten digu, honen

funtzionamendua azalduz. Aurrerago txapazko plantxak erabiltzen hasi zen.

Transkripzioa

- Zelan, ziren plantxak lehen?
- Ba plantxak, lelango lelango guk euki doguna /duna/ da ha, han dau, aitu, haxe. Brasak sartzean zien. Brasak sartu eta aitu: hau altzeu eiten da. Hau altzeu eiten zan. Hau ez da altzetan, hamarreta egongo da? Aber ? Bai, hau altzetan zan. Hau, betetu brasakaz. Bai. Eta, berotute egoten zanian, imini hau parrillea, zuk ikusten dozu? Igual zeozer, ba zeozer plantxetan eta akabo, akaboko.... ya zauzela akabetan, igoal urteten otsun hametik txingar batek eta dana lohitu. Hala, ostera be garbitzen arkondarea edo okiten zenduna. Nik hau ezetu dot lelango. Ze gero, ze gurean, lelango baserrian bakarrik euki gendun behesue. Eta gero, ya nik hamalau urte edo holan euki neuzenean imini eurien zera, txapea. Txapea. Eta han egon zien, ez dakit nondi dauzen horrik bestak. Beste hau eroaizu ya. Egon zien beste plantxatxuek, burnizkoak, txikitxugoak baia txapean ganean imiten zien berotan. Txapea, zuk hondino badakizu, eukiko dozu txapa. Eta gero, haregaz ya harek ez eurien hainbeste lohituten; ze harek, ez eurien eukiten brasa, ez hautse, ez ezebez. Bakarrik beroa eta holan eiten gendun ba...
- Eta ze, jaboia erabiltzen zan garbitzeko?
- Jaboia, bai. Bai, bai. Jaboia eta lejie beti ezetu dotaz. Hortik nire... koiñeata bat dekot Leonen, hondiño bere, aurek eiten deurie jaboia, ordiegaz eta horrekaz gauzekaz. Urdiek grasagaz, txarrienakaz-ta. Bai, baie hamen ez dot ezetu hori nik. Hamen beti ezetu dot jaboia. Eta argirik ez gendunean eukiten, karburoa, kandile ta karburoa. Hondinok dekot... memorien dekot usine. Da gauze bat ez dakit ze ixin zan, karburo. Eta ba botaten zan ta harek eiten euen kandilek, argie iten euen. Bai.

4.3. Piper Iberbekoren Kanta eta botoak

- **Hizlaria(k)**: Soba Landeta, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elkartea, Tximintx
- **Erref**: ZAM-001/020
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:32:37. **Bukatu**: 00:34:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Kantak
 - Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Piper Iberbekori egindako kanta abesten du. Gaur egun bezala lehen ere botoak erosten zirela kontatzen du.

Transkripzioa

- Kanta bat nik amari entzunte dekot eta hondino dauz... oseake horren baserrie ta dana dau. Hori, esan dotsutena lehen... zelan da? Bai, baie zelan zan?

“Hasi Kasutxan eta Larrabetzuraino,
karroan eroan deure Piper Iberbeko.
Jaten emon dotsie, edaten hobeto,

ganera hogei errial kafia hartzeko.
Kafiak eskatzen jau, kopa ta purue,
ez dala Piper hori dendari karue".

Hori dino, hori da egie. Ze dino, eta gaur etor daste niri etxera oseke... ez da kanbiau arean bez. Arean bez e? gaur etor daste niri Oncetik boto baten bile. Ordun be botoak erosi... orduen erosi eiten eurezan botoak. Eta [...] hori, Piper Iberbeko, han dau baserrie hondino ta biziko zan han bizi zana. Ba erosi eurien, hori emon otsien eureri. Ta gero esaten deure ez zala... ez akiela kosteu asko. Osea eroan karroan Kasutxaneti Larrabetzuraiño ta emon jan eta edan, eta kafia ta purue eta kopa, eta eta ez zala ixin karue esan eurien, ez dakit nik. [...] gehiau pageta eurien.

- Hori auzokoak atarako zeuren.

- Klaro, baia egie izingo zan e! Hori atata eurienean. Egie izingo zan.

4.4. Bi kanta labur

- **Hizlaria(k)**: Soba Landeta, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elkartea, Tximintx
- **Erref**: ZAM-001/021
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:34:22. **Bukatu**: 00:35:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Gisasola, Karmen
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kankak » Bestelako kankak
- **Laburpena**: Bertso antzeko bi kanta labur kantatzen ditu.

Transkripzioa

- Bueno lehenguneko zera esango dotsut ezta? Hori bertsoa ?
- Hori, hori izan zan piropo.
- Bueno, baia dino honek ba, dala, "como verso". Edo eta ez ? Izin zan....

"Udebarrian urtetan deuren,
lora zuriak munean, munean.
Harexek baiño politau dira,
Itsasne zeure begiak".

Eta, beste bat hau :

"Mendi altutik bajatan dira,
idi gorriak oteaz, oteaz.
Han datorrela plegeu-plegeuta,
Ixiar zeure dotea".

4.5. Kankak

- **Hizlaria(k)**: Soba Landeta, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elkartea, Tximintx
- **Erref**: ZAM-001/022
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:35:20. **Bukatu**: 00:37:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Gisasola, Karmen
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** Hiru kanta abesten ditu.

Transkripzioa

- Haur kantak ? Hori oin be kantetan deure hori. Nik amari entzunte dekot. Nire amak kanta guztiek kantetan zeuzen bardin. Soinu beragaz.

“Seintxu txikerra negarrez dago,
ama emoiozu titie,
aitaordia tabernan dago,
tunante jokolarie.
Aitaordia tabernan eta,
ama ta alaba jokoan,
osterabere egongo dira,
gonarriak auzoan”.

“Obabatxue lo tirintaiñe,
ez egin lorik basoan,
lukiren batek jan ez egizan,
bildotsa zarialakoan”.

Bai, beste bat be, badakit eta musike beragaz hori:

“Txikitxuteri politxutera,
fraile nenduen nonbradu,
estudioak ikisten bere,
Salamankara biraldu.
Salamankako Obispo Jauna,
zer emon iosten kontseju?
Estudiante pikaro baxen,
hoba nenduela ezkondu.
Ezkondu nintzan ezkondu,
baia niri ondo damutu,
fraka baltzian hari zuria,
etxatela inoz faltatu”.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Ferien eta baserriaren gainbehera (ZAM-005/001)

Idiekin ibili izan da bizi guztian. Baserriaren gainbeheraren beldurrik ez du, lurrik izanez gero. Lehen feriak egoten ziren baina kentzen ari direla dio. Bilgune eta transmisiorako gune garrantzitsuak izan direla dio. Baserritarrentzat laguntzarik ez dagoela dio.

2. Idien jatekoa (ZAM-005/002)

Idi probetan ibiltzen da. Idiei irina, pentsua eta beste ematen dizkie jateko. Demetan gogorren dabilzanak izendatzen ditu.

3. Idiekin lanean beti (ZAM-005/004)

Hamalau urterekin hasi zen idiekin lanean eta dirua nahiko ondo irabazten zuen. Idiekin lanean jarraitzen du orain ere, nahiz eta askorik ez irabazi.

4. Lurrik gabe (ZAM-005/005)

Aldundiko baserria zen, beste batzuekin batera, eta orain lurrak kendu egin dizkiete. Lan eginez gero, baserrian bizimodua badagoela dio, eta gustatu egin behar dela.

5. Baserritarrentzat laguntzarik ez (ZAM-005/006)

Gaixotutako behiak eraman zizkieten eta laguntzarik ez dute ikusi. Baserritarrentzat laguntzarik ez dagoela dio.

6. Soldadutza Bizkaian (ZAM-005/009)

Soldadutzan La Casillan, Deustun, Plentzian eta Zamudioko barrakoietan egon zen eta handik etxerako baimena eman zioten.

7. Juan Atxuri probalaria (ZAM-005/012)

Juan Atxuri probalariari buruzko kontuak esaten ditu. Idi demetako giroa eta apustuak zelakoak diren azaltzen du.

8. Bizkaiko eta inguruko probalariak (ZAM-005/013)

Idi probak galtzen joango direla uste du. Bizkaian zenbat uztarri dauden esaten du. Inguruko probalariak izendatzen ditu.

9. Uztarrigileak (ZAM-005/017)

Arantzazun, Arratian, uztarrigilea dago eta etxera etortzen zaio. Uztarren eta idien prezioak esaten ditu, lehengoak eta oraingoak. Uztarrigileak izendatzen ditu.

10. San Antoniori buruzko koplak (ZAM-005/019)

Bertsozalea ez da izan baina koplak badakizki eta San Antoniori buruzkoak abesten ditu.

11. Inguruko errementariak (ZAM-005/023)

Errementariak sendatzen dizkie errenak idiei. Hainbat izendatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com